



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

### TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

**Batzordea:** Tokiko Gobernu Batzarra

**Bilera-zenbakia:** 2008ICGO0005

**Eguna:** 2008/05/05

**Ordua:** 11:30-12:45

**Tokia:** Alkatetza

#### Bertaratuak

- |                                   |         |
|-----------------------------------|---------|
| - Bixente Arrizabalaga Bengoetxea | EA      |
| - Eloy Bazan Bazan                | EA      |
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo    | EAJ/PNV |
| - Carlos de la Peña Hornés        | EB-B    |

#### Bertaratu ez direnak

-

#### Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

#### Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / N°	ORDEN DEL DIA
2008/04/18ko aktaren onarpena	1	Aprobación del acta de 18/04/2008
Santiagomendiko Plan Bereziaren SAN-16 HEUaren errepartzelazio-proiektuari hasierako onarpena ematea.	2	Aprobación inicial del Proyecto de reparcelación relativo a la U.E.U. SAN-16 del Plan Especial de Santiagomendi.
Gaiar Eraikuntzak SLk aurkeztutako xehetasun-azterlanari hasierako onarpena ematea.	3	Aprobación inicial del Estudio de Detalle presentado por Gaiar Eraikuntzak SL. Para la U.E.U. 5.2 "Portutxo".
Etxeberrikoa Eraikuntzak SLk aurkeztutako xehetasun-azterlanari hasierako onarpena ematea.	4	Aprobación inicial del Estudio de Detalle presentado por Etxeberrikoa Eraikuntzak SL para la U.E.u. 8.1 "Izaskun Baserria".
Galde-erreguak	5	Ruegos y preguntas



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

### Esan-eginak eta erabakiak

#### **1.- 2008/04/18ko aktaren onarpena**

2008/04/18ko akta aho batez onartu da.

#### **2.- Santiagomendiko Plan Bereziaren SAN-16 HEUaren errepartzelazio-proiektuari hasierako onarpena ematea.**

Alkateak, Hirigintzako Batzordearen irizpena aurkeztu du, non Santiagomendiko Plan Bereziaren SAN-16 HEUaren errepartzelazio-proiektuari hasierako onarpena ematea proposatzen den.

Idazkari kontu-hartzaileak jakinarazi du, eta betiere 2/2006 Legearen 95. artikuluan xedaturikoari jarraiki, Plan Bereziaren SAN-16 HEUari buruzko errepartzelazio-proiektuak 20 eguneko epean egon beharko duela jendaurrean erakusgai, Aldizkari Ofizialean eta hedapen handieneko egunkarien arteko batean iragarkiak jarrita.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, hasierako onarpena eman dio Santiagomendiko Plan Bereziaren SAN-16 HEUari buruzko errepartzelazio-proiektuari eta 20 eguneko epean jendaurrean erakusgai jartzea erabaki du.

#### **3.- Gaiar Eraikuntzak SLk aurkeztutako xehetasun-azterlanari hasierako onarpena ematea.**

Hirigintza Batzordearen irizpena aurkeztu du alkateak, non Gaiar Eraikuntzak SLk 5.2 "Portutxo" HEUrako aurkeztutako Xehetasun Azterlanari hasierako onarpena ematea proposatzen den.

Idazkari kontu-hartzaileak jakinarazi du, eta betiere 2/2006 Legearen 98.

#### **1.- Aprobación del acta de fecha 18/04/2008**

Se aprueba por unanimidad el acta de 18/04/2008.

#### **2.- Aprobación inicial del Proyecto de reparcelación relativo a la U.E.U. SAN-16 del Plan Especial de Santiagomendi.**

El Alcalde presenta el dictamen de la Comisión de Urbanismo proponiendo la aprobación inicial del Proyecto de reparcelación relativo a la U.E.U. SAN-16 del Plan Especial de Santiagomendi.

Informa el Secretario-Interventor que conforme a lo dispuesto en el artículo 95 de la Ley 2/2006, el proyecto de reparcelación relativo a la U.E.U. SAN-16 del Plan Especial deberá someterse a información pública por el plazo de 20 días con anuncios en el Boletín Oficial y en un diario de mayor difusión.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, procede a la aprobación inicial del Proyecto de reparcelación relativo a la U.E.U. SAN-16 del Plan Especial de Santiagomendi y acuerda someter a información pública por el plazo de 20 días.

#### **3.- Aprobación inicial del Estudio de Detalle presentado por Gaiar Eraikuntzak SL. Para la U.E.U. 5.2 "Portutxo"**

El alcalde presenta el dictamen de la Comisión de Urbanismo proponiendo la Aprobación inicial del Estudio de Detalle presentado por Gaiar Eraikuntzak SL. Para la U.E.U. 5.2 "Portutxo".

Informa el Secretario-Interventor que



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

artikuluari xedaturikoari jarraiki, Xehetasun Azterlanak 20 eguneko epean egon beharko duela jendaurrean erakusgai, Aldizkari Ofizialean eta hedapen handieneko egunkarien arteko batean iragarkiak jarrita.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, onartu egin du Gaiar Eraikuntzak SLk 5.2 "Portutxo" HEUrako aurkeztutako Xehetasun Azterlanari hasierako onarpena ematea eta 20 egunez jendaurrean erakusgai jartzea erabaki du.

#### **4.- Etxeberrikoa Eraikuntzak SLk aurkeztutako xehetasun-azterlanari hasierako onarpena ematea.**

Hirigintza Batzordearen irizpena aurkeztu du alkateak, non Etxeberrikoa Eraikuntzak SLk 8.1 "Izaskun Baserria" HEUrako aurkeztutako Xehetasun Azterlanari hasierako onarpena ematea proposatzen den.

Idazkari kontu-hartzaileak jakinarazi du, eta betiere 2/2006 Legearen 98. artikuluan xedaturikoari jarraiki, Xehetasun Azterlanak 20 eguneko epean egon beharko duela jendaurrean erakusgai, Aldizkari Ofizialean eta hedapen handieneko egunkarien arteko batean iragarkiak jarrita.

Tokiko Gobernu Batzarrek, aho batez, onartu egin du Etxeberrikoa Eraikuntzak SLk 8.1 "Izaskun Baserria" HEUrako aurkeztutako Xehetasun Azterlanari hasierako onarpena ematea eta 20 egunez jendaurrean erakusgai jartzea erabaki du.

#### **5.- Galde-erreguak**

5.1. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak emandako

conforme a lo dispuesto en el artículo 98 de la Ley 2/2006, el Estudio de Detalle deberá someterse a información pública por el plazo de 20 días con anuncios en el Boletín Oficial y en un diario de mayor difusión.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, procede a la aprobación inicial del Estudio de Detalle presentado por Gaiar Eraikuntzak SL. Para la U.E.U. 5.2 "Portutxo" y acuerda someter a información pública por el plazo de 20 días.

#### **4.- Aprobación inicial del Estudio de Detalle presentado por Etxeberrikoa Eraikuntzak SL para la U.E.u. 8.1 "Izaskun Baserria".**

El alcalde presenta el dictamen de la Comisión de Urbanismo proponiendo la aprobación inicial del Estudio de Detalle presentado por Etxeberrikoa Eraikuntzak SL para la U.E.u. 8.1 "Izaskun Baserria".

Informa el Secretario-Interventor que conforme a lo dispuesto en el artículo 98 de la Ley 2/2006, el Estudio de Detalle deberá someterse a información pública por el plazo de 20 días con anuncios en el Boletín Oficial y en un diario de mayor difusión.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, procede a la aprobación inicial del Estudio de Detalle presentado por Etxeberrikoa Eraikuntzak SL para la U.E.u. 8.1 "Izaskun Baserria" y acuerda someter a información pública por el plazo de 20 días.

#### **5.- Ruegos y preguntas**

5.1. El Secretario-Interventor da cuenta de la sentencia emitida por el Tribunal



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

epaiaren berri eman du idazkari kontu-hartzaileak, izan ere 126/08 epaian erabaki baitu Astigarragako Udalaren 2000ko abenduaren 21eko ebazpenaren aurka Alberto Amandio Lima de Carvalho-Rodrigues jaunaren prozesuko ordezkariak ,jarritako 2422/01 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtoa ezestea. Idazkariak adierazi duenez, Justizia Auzitegi Nagusiak bermatu egiten du epaiaren bidez Astigarragako Udalak Udaltzaingoaren plazak hornitzeko garatutako kontratazio-prozedura.

Superior de Justicia del País Vasco, quien en sentencia 126/08 acuerda desestimar el recurso contencioso-administrativo nº 2422/01 interpuesto por la representación procesal de D. Alberto Amandio Lima de Carvalho-Rodrigues, contra resolución de 21 de diciembre de 2000 del Ayuntamiento de Astigarraga. Señala el Secretario, que a través de la sentencia el Tribunal Superior de Justicia avala el procedimiento de contratación desarrollado por el Ayuntamiento de Astigarraga en la provisión de las plazas de la Guardia Municipal.

5.2. Alkateak jakinarazi die Batzarreko kideei jaso duela Udalak ekin nahi dien proiektuen idazkuntzaren aurreikuspen-kostua. Jakinarazi du, eskaintzak aztertu ondoren, dagozkion esleipenak gauzatuko dituela

5.2. El alcalde da cuenta a los miembros de la Comisión que ha recibido la estimación de coste que supone redactar distintos proyectos que desea afrontar el Ayuntamiento. Comunica que a la vista de las ofertas, procederá a formalizar las adjudicaciones pertinentes.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2008ko maiatzaren 5a

Xabin Olaizola Lasa  
Idazkari kontu-hartzailea